

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARAMAIOKO UDALA

2026 urterako udal zergak eta tasak arautzen dituzten ordenantza fiskalen aldaketa. Hasierako onarpena

Aramaioko Udalbatzak, 2025eko urriaren 27an egindako osoko bilkuran onartu ditu, behin behineko izaeraz 2026 urterako udal zergak eta tasak arautzen dituzten ordenantza fiskalen aldaketa egitea.

Uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauko 16 artikuluan ebatzitakoarekin bat, jakinarazten da behin behineko izaeraz onartu diren zerga ordenantza eta tasak arautuko dituen ordenantzako testua, apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49.b). artikuluan erabakitakoarekin bat (41/1989 Foru Arauko 50. artikuluekin bateratsu), jendearen eskura jarrita daudela, udaletxeko bulego orokorrean, 30 egunez, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, interesdunek egoki irizten dituzten erreklamazioak aurkezteko; erreklamaziorik ez bada aurkezten erakustaldi publikoaren epearen barruan, erabakia behin betiko onartutzat hartuko da.

Aramaio, 2025eko urriaren 28a

Alkatea

ASIER AGIRRE MUGARTZA